



Covid-19a

eta hazten doan desberdintasun globala

Pandemiaren eragin soziala,
eta Alboan eta bere erakunde aliatuen erantzuna

2020ko urria

 **alboan**

ONG · JESUITA · FUNDAZIOA

Urtarrilaren 5ean, Txinak jakinarazi zuen Wuhan hirian koronabirusagatik eragindako infekzioaren lehen kasua. Harrezkero gaixotasun berri eta ezezagun hau zitzu bizian hedatu da planetako bazter guztietan zehar, banaketa-erdigune handiak periferia guztiekin konektatzen dituzten garraiobide-kate globalak erabilia.

Martxoaren erdialdera, zenbait Estatu, kutsatzeko abiaduragatik beldurtuta, bat-batean etxeetan geratzeko konfinamendua ezarri zuten herritarrentzat, eta baita eskolen itxiera agindu, mugimenduak murriztu eta mugak itxi ere. Horrela, kale eta parkeetako zarata isiltasun bihurtu zen eta pertsonen mugimendua funtsezko jardueretara mugatu zen.

Osasunean izandako eraginari gehitu zitzaion ekonomiaren geldialdia, eta, horren ondorioz, bi eremu horien arteko oreka bilatu behar izan da, zeren eta birusaren hedapena geldiarazteko baliagarria dena, hots, urruntze soziala eta mugikortasunik eza, ekonomiarako kaltegarria baita.

Pandemiak fenomeno global berriaren izaera hartu du, herri guztietan eragina du, baina, hori bai, modu desberdinetan. Izan ere, **covid-19ak nabarmendu eta areagotu egin ditu gure mundua urratzen duten desberdintasun zaugarriak**. Latzago ari da jotzen herri pobreetan; herri aberatsetan, berriz, osasunean eta ekonomian baliabide gehiago dute epidemiari aurre egiteko. **Egia esan, gaixotasuna heldu zaigunerako, munduko desberdintasunak gero eta handiagoak bilakatu ziren. Birusak larriagotu egin du egoera hori.**

Garatuago dauden herrialdeetan, beren osasun-sistemen bitartez, erantzuna eman ahal izan dute, ospitaleratzea, UCI oheak, oxigeno horniketa eta jarraipeneko arreta eskaintzeko. Aldi berean, Estatu horietan era askotako programak eratu dira, bai partikularrentzat, bai enpresentzat, pandemiari aurre egin bitartean, ekoizpen-jarduera mantendu ahal izateko.

Pobretuak diren herrialdeetan, berriz, kontrakoa gertatzen da: osasun-baliabiderik ez dute kalteturiko



Fe y Alegría | Gleybert Asencio



pertsonei laguntzeko; egoera berdina ikus dezakegu ekonomian, ez baitago behar bezalako finantza-gaitasunik kaltetutako familiei eta negozioei laguntzeko.

Prekaritatea, bazterkeria eta desberdintasuna areagotzen dira.

Osasuna

Hegoaldeko herrialdeek ez dute osasunerako azpiegitura egokirik sintoma larrienak dituzten gaixoentzat artatu ahal izateko, adibidez, arnas ezintasun edo afekzio kardiobaskularren kasuetan. Ospitaleko plazak eskasak dira hainbat pertsonarentzat, eta, horren ondorioz, ezin zaie arreta egokia eman. Horrela, Ekuadorren eta Brasilen, adibidez, hainbat jende hil da kaleetan, erabat beterik dauden ospitaleen ateetan.

Indian, birusa hirietatik landara zabaldu zen, urtaroko migratzaileak, enpleguak galdu ondoren, beren etxeetara itzuli zirenean. Han, pertsona zaharrak kutsatu zituzten, baina, beren herrixkak osasun-zentroetatik urrun zeudenez, egoera medikoa larritzean, ez ziren garaiz heltzen zentro horietara.

Amazoniara, goiz heldu zen covid-19a, eta bereziki kaltetu zuen *Iquitos* hiria. Bertan ez zegoen oxigenorik eskuragarri. *Awajun* talde indigenako gazte batek hauxe zioen: “gizateriaren birikek oxigenoa behar dute”. Antzeko egoeran ere geratu dira Amazoniako

beste herri indigena batzuk: kutsatze-maila altuak izan dituzte, inolako arreta medikorik gabe. Peruk, gaur egun, heriotza-tasa handiak ditu: 96 hildako 100.000 biztanleko, baina Osasun Ministerioak ez du kontuan hartzen hildako indigenen kopurua.

Peruko Amazonian, ondoko hau izan da Alboanen zeregina, SAIPE indigenen tokiko elkartearekin batera burututakoa:

- Bertako 18 komunitatetako 500 pertsonentzat, elikagaien poltsak eta garbiketarako tresnak ematen lagundu du, Estatuko diru-laguntzarik ez baitute jasotzen.
- *Nieva* barrutirako oxigenoko planta lortzeko asmoz, kanpaina publikoan aritu da, laguntza emanez eta kanpainaren helburua jakinaraziz. Lurraldeko jesuiten elizaren ekimena da eta Peruko bestelako lurraldeetan ere ekintza hau bultzatzen ari dira.
- Oinarrizko hezkuntza dela-eta, heziketa-materiala banatu du haur eta nerabeen artean, ez baitute eskuratzen gobernuaren programa birtuala, “Etxean ikasten dut” deiturikoa. Hau ez da posible hainbat gazterentzat, internet, irratia edo energia elektrikoa eskuratzeko aukerarik ez baitute. Orain, etxeetan hartzen dituzte klaseak.
- Enplegua eta diru-sarrerak lortzeko aukera berriak bilakatzen ari da.
- Indigenen antolaketa sendotzeko laguntza ematen du, osasun-arreta hobea, hezkuntza, enplegua eta ingurumen-babesa edukitzeko eskubideak defenda ditzaten.

Antzeko egoerak ere gertatzen dira Afrikan, baina bertan pandemiari gehitzen zaizkio bestelako gaixotasun endemikoak, hala nola malaria, tuberkulosia edo meningitisa. Horrez gain, osasun-sistemak gainezka daude, saneamendua eskasa da, malnutrizioa jasaten jarraitzen dute eta oso pobreak dira bizi-baldintzak. Hilabete hauetan, otien izurria gogor jotzen ari da kontinenteko ekialdean, eta lurraldeko egoera larriagotu. Neurri handi batean, gazteak ari dira laguntzen gaixotasunari aurre egiteko.

Dena den, Afrikako datu-eskasia kezkarria da, ez baitugu argi ezagutzen gaixotasunaren hedadura. Hegoafrikatik bakarrik heltzen da informazio fidagarria, eta bertako gaixoen kopurua oso handia da. Kaosaren erdian, Tanzaniak edo Burundik gaixotasunaren presentzia edo eragina ukatu dute, eta, ondorioz, ez dute inolako neurririk hartu nahi, hedapena prebenitzeko.

Neurri higienikoak, pertsona askorentzat, oso zailak dira jarraitzeko: **3.000 milioi pertsonak ezin dituzte beren etxeetan eskuak urez garbitu**, eta askoz pertsona gehiagok zailtasun handia dute maskara higienikoak lortzeko edo segurtasun-distantzia mantentzeko, gainezkako auzoetan bizi baitira.

Oro har, Hegoalde globalean, pandemia kontrolik gabe dago, eta herritarren artean zabaltzen da. Horietako asko gazteak dira, batzuetan osasun-arazo larriak izanda, eta ia arreta medikorik gabe. Gaixotasunean moldatzen dira, baliabide eskasak erabilita.

Hezkuntza

Kalkulatzen da 2018an 260 milioi haur ez zirela joaten lehen edo bigarren mailako eskolara joaten, hau da, eskolatua egoteko populazioaren %20. Horrez gain, horietako erdiek ez zuten gutxieneko maila lortzen irakurketan eta matematiketan. Azken hamarkadetako aurrerapenak izan ondoren, negargarria da egoera hau.

Hori kontuan hartuta, 2020ko apirilean **1.600 milioi haur etxeetan geratu ziren bat-batean, eskolara joan ezinik**, eta egoera hori luzatu da, mugagabeko epean, herrialde askotan. Horrek ikaskuntza prozesua desbideratu, bizitza-ohiturak eraldatu eta eragina handiagoa du babesik gabeko haurren artean. Horrela, eskoletako jantokiak ixteak berekin dakar elikatzeko iturburu zurrak kentzea hainbat hurrentzat.



ALBOANek lanean jarraitu du, **Fe y Alegría** erakundearekin bat egiten, komunitateei hezkuntza arreta eta laguntza eskaintzeko, COVID-19arengatik larriagotutako beharren aurrean:

- Herrialdeetako Fe y Alegría erakundeek lehentasuna eman zioten bere lanarekiko lotura duten pertsonen laguntzeari. Premiazkoak izan dira arreta humanitarioa (elikagaiak, higienarako baliabideak, etab.), osasunerako laguntza, arreta psikologikoa eta emozionala, elikadura-segurtasuna, besteak beste.
- Kalitatezko herri hezkuntza eskaintzen jarraitzeko moduak bilatu, eta arrail digitalaren erronkari aurre egin estrategia anitzen bidez, hala nola online prestakuntza, irrati bidezko urrutiko hezkuntza, mugikorrak... eta, ahal den neurrian, eskuragarri ipini baliabide teknologikoak horrelakorik ez dutenentzat.
- Abian jarri birusari aurre egiteko sentsibilizatzeko eta autozainketa-kanpainak.
- Erronka larriaren aurrean, kalteberatasun-egoeratik ikasleek eskola bertan behera uztearen kasuan, adibidez, ikasleen jarraipena egin.
- Eragin sozial eta politikoa lortzeko ekintzak diseinatu, kalitatezko hezkuntza, inklusiboa eta eraldatzailea bermatzearren.

Arrail digitalak eragotzi die ikasle askori klaseak etxean hartzea, oinarrizko terminalik edo beharrezko konexio telematikorik ez izateagatik. Munduko ikasleen erdiek ez daukate ordenagailurik etxean, eta 700 milioik baino gehiagok ez dute internet. Herrialde askotan, eskola-saioak irrati edo telebistaren bitartez eskaini dira, irakasleen laguntzarik izan gabe.

Eskolak berriro hasten direnean, bermatu behar da eskola uztea ez dela areagotuko. Hori geratuz gero, urteetan zehar haur txikientzat egindako lana bertan behera geratuko litzateke.

Eragin ekonomikoa

Martxoaren erdialdean, konfinamendua hedatu zen planetako herrialde askotan eta ekonomia-eremu asko geldiarazi zuen. Eremu horietako batzuek ez dute lana berreskuratu, eta ez dira itzuliko lehen izandako jarduera-mailara, pandemia, behin betiko, atzean utzi arte. Enplegu txarrenak eta esposizio fisiko handiagoa eskatzen dutenak gertatu dira bereziki kalteturik.

Zenbait Estatuk fondo ugari ipini dute enplegurik gabeko herritarren oinarrizko beharrak asetzeko eta geldialdiko garaian porrot egiteko arriskuan dauden enpresei laguntzeko.

Herrialde pobreetan, berriz, horrelako aukerarik ez dago, ez baitute, ez diru-sarrerarik, ezta zorpetzerako gaitasunik ere. Herritar gehienek enplegu ez-formala daukate, eta egunez egun lortzen dute dirua bizirik ateratzeko produktuen salmenta txikien bitartez. Konfinamenduan, osasuna babesteko eguneroko diru-sarrera galdu behar izan dute. Ezinbestekoa zen aukera hau: osasuna ala mantenua.

Pandemia honetan, 25 milioi pertsona inguru lanik gabe geratuko direla kalkulatu da. Latinoamerikak, azken krisialdi ekonomikoa lehengaien erazketari esker ondo gairatu badu ere, hamarkada bateko hazkundea galduko luke.

Munduan, **500 milioi pertsona berriro muturreko pobrezian bizitzeko arriskuan egongo lirateke.**

Horrela, hogeita hamar urtean egindako aurrerapenak galtzeko zorian daude: 1990ean, mundu-mailako populazioaren % 35 zegoen pobrezia-ataritik behera eta 2019an, berriz, %10, hau da, 700 milioi pertsona muturreko pobrezian.

Ondorio sozial eta ekonomikoak suntsigarriak izan daitezke hurrengo hilabete eta urteetan.

Egoera bereziak

Hainbat lanetan, gehienak dira **emakumeak**: pertsona zaharren zainketan, ospitaleen garbiketan, egoitzetako jardueretan... eta, neurri handiago batean, enplegurik eza, pobrezia edo bazterte soziala pairatzen dituzte. Familien, ezinduen edo gaixoen zainketaren zama daramate. **Horregatik, larriago pairatzen dituzte gaixotasunaren ondorioak.** Espainian osasun arloan kutsatutakoen %76a emakumezkoak dira.

Indian, pandemiak eragin zuzena izan du lan ez-formala duten emakume langileengan: eguneroko janarien murrizketan, konfinamenduaren ondorengo debaluazioan eta soldataren jaitsieran, eta tokiko lukurarien gehiegizko zorpetzean. Halaber, antolaketa-guneak ere erabat murriztu direla ikusi dute, konfinamendugatik komunitateko asanbladak kentzean.





ALBOAN, **Indiako** tokiko erakundeekin batera, erantzuteko eta egokitzeko ekintza batzuk bultzatzen hasi da, dalits emakume langileak artatzeko asmoz:

- Telefonoaren bidez informazio iraunkorra eskaini, birusak eragindako kutsatzeaz, baita gobernuak pandemiari buruz hartzen dituen erabaki eta programez ere.
- Eskaini oinarritzko elikadura-laguntza.
- Esku-hartze legeletan lagundu, konfinamendua-gatik kalteturik gertatu diren emakumeen eskubideak bermatzeko.
- Kaltetuen gertatu diren pertsoneri lagundu eta aholkuak eman, gobernuak eskainitako larrialdiko laguntzetarako eskabideak egin ditzaten.
- Enplegu ez-formala duten emakume langileei buruzko informazioa bildu, emakumeek beraiek erabiltzen duten irratik elkarreragile baten bitartez.

Mugen itxierak zailtasunak gehitu dizkie **personek errefuxiatuen** mugimenduari eta asilo-eskubideari. Gizatalde askok errefuxiatu-esparruetan geratu behar izan dute, mugitu ezinik, eta bertako bizi-baldintzak ikaragarriak dira: osasungarritasunik eza, eskasia eta pilaketa, hau da, egiazko itxialdi-tranpak, birusa sartzen denean. Irailaren 8an, Moriako errefuxiatuen esparruan, Greziako Lesbos uhartean, 12.000 pertsona baino gehiago asilo-eskatzailleak zirelarik, suteak suntsitu zituen denda asko. Leherrarazlea izan zen birusaren zenbait kasu antzematea, eta horrek, halaber, matxinadak sortarazi zituen.

Bestalde, **gerran dauden herriek** ere kalte handiak izan dituzte, egoera horretan oinarritzko neurri higienikoak mantentzeko zailtasunak nabariak dira-eta. Horrez gain, eraso belikoen eragin latza dute osasun-zentroetan. Yemenen, horietako erdiak suntsituak izan dira borrokan dauden armadek eta talde armatuek jaurti dituzten lehergailuengatik.

Herrialde batzuek konfinamendua aprobetxatzen dute, populazioa hobeto kontrolatzeko, eta zelatatu eta erasotzen dituzte herritarrak, Burundin edo Tanzanian gertatzen den bezala. Beste herrialde askok ere bide berebean jarraitzen dute.



Alboanek, **Tanzaniako SJR Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuitarekiko lankidetzan**, garatzen ari ziren proiektuak egokitu ditu Covid-19ak sortutako errealitate berrira:

- Kirol-materiala banatzea bertan behera utzi dugu, eta, horren ordez, higienerako tresnak erosi: baldeak, maskarak, xaboia eta gel hidroalkoholikoa, esparruetako eskoletatik banatutakoak.
- Lanbide heziketa presentziala eraldatu da eta orain tableten eta plataforma digitalen bidez hezkuntza birtuala garatzen ari gara bideokonferentziak egin ahal izateko.
- Bisiten eta hurbileko laguntzaren ordez, telefono bidezko elkarrizketak erabiltzen ari dira, eta terapia psikosoziala, komunitatearen irratia baten bitartez egiten da.

Burundi

- Diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak-errefuxiatuen esparruetan jadanik egiten zirenak- eraldatu dira eta orain xaboia eta maskarak ekoizteko tailerrak dira. SJRek banatu ditu produktu horiek eskoletan, eta esparruetan behar dena ere hornitu dute.
- Eskoletan ur garbirako puntuak ezarri dira, baita eskuen garbiketarako tresneria ere, prebentzioa bermatzeko.

Kamerun

- Hautzaroa babesteko programak bultzatzen jarraitzeko, irratia tresna baliotsua izan da: VBG prebenitzeko, eta laguntza psikosoziala eta sentsibilizatzeko-kanpainak gauzatzeko.

- Emakumeen kooperatibetan berrerabiltzeko maskarak egin dituzte.
- Tailerretan parte hatzen dutenei banatu zaizkie eskuen garbiketa-puntuak eta xaboa.

Nigeria

- 20.000 prebentzio eta higienarako kit banatu dira emakume onuradunen artean, ALBOANen laguntzako FBS eta FFS direlakoetan parte hartzen duten emakumeen artean, hain zuzen.

Kongoko E.D.

- Eskoletan, prebentziorako hartu behar diren neurriak buruzko sentsibilizazio-saioak burutu dira.
- Eskoletan nahiz komunitateetan, prebentzio-kitak banatu dira.

Azpiraratzekoak ere badira SJR **Txaden eta Afrika Erdiko Errepublikan** gauzatzen dituzten zereginak, hezkuntza, babesak eta laguntza ematen jarraitzeko, eskolen eta heziketa-zentroen itxiera gertatzean:

- Pertsona errefuxiatuen esparruetan, WhatsApp-en bidez egindako klaseak (CAFE du FLE bezala, zalantzak argitzeko edo apunteak zuzentzeko), etxeetan talde txikiekiko irakaskuntza, ikasleentzako apunteak eskuragarri jartzea, heziketa zentroetan hartzeko eta gero etxean ikasteko.



@anaencabophoto

- Irratiaren bidezko klaseak: L'École à la Radio, Bambarin, Afrika Erdiko Errepublikan eta Txadeko N'Djamenan; haurtzaroa babesteko edo unibertitate-hezkuntzarako guneetan smartphonak edo bizikletak banatu, SJR taldearekin komunikatu ahal izateko eta edozein gertaera edo beharren berri emateko.

Herrialde guztietan, informaziorako posterrak eta liburuxkak banatu dira hizkuntza askotan: arabieraz, frantsesez, ingelesez, haussaz, swahiliz, ffuldez, kirundiz...

Espainiako egoera

Aurreko krisialdi ekonomikoak desberdintasuna areagotu ondoren etorri zaigu pandemia hau. Europar Batasunean, Espainia laugarrena da desberdintasun-maila kontuan hartuta, eta pobrezia-tasa erlatiboa %22koa da. Krisialdiaren ondorengo hamarkadan, laneko errentek 5 puntuko murrizketa izan zuten BPG-ko ekarpenean.

Amets batean egongo bagina bezala, birusak esnarazi gintuen, ordura arte sendotzat hartzen genuen osasun-sistema, aste gutxian, hankaz gora jartzean. Baina akats eta ahulezia ugari metatzen

zituena jadanik, azken hamarkadan burututako murrizketen eraginez.

Zenbait estimaziotan, **700.000 pertsona egongo dira pobrezia erlatiboan**, eta, horrela, %26ko tasara heldu. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren bitartez, kolektibo ahulenek krisiaren zenbait ondorio konpon lezaketek, baina kalitatezko enpleguak bakarrik eskainiko du lasaitasuna modu seguru eta iraunkorrean.

Pandemian zehar enplegua galdu duten pertsona gehienek oso soldata baxuak zituzten, eta langile asko aldizkako kontratuetan ibili ziren. Horixe ere bada kolektibo migratzaileen kasua. Horietako as-

kok jantoki sozialetara edo elizetara joan behar izan dute krisiaren unerik larrienetan.

Elkartasuna, gure mugetatik haratago

Hegoaldeko herriek behar gaituzte eta, aldi berean, guk ere haiek behar ditugu. Pandemia honi aurre egin behar diogu **elkarrekin**, konponbiderik ez baita egongo, planetako bazter batzuetan birusaren gordailuak egon bitartean. Pobreak diren herrialdeetako osasun-sistemek laguntza behar dute sendoak izatearren eta, horretarako, Iparraldeko herrialdeek lagundu ahal dute, beren fondoak emanez gero.

Garapenerako Lankidetzak eta Ekintza Humanitarioko aurrekontuak handitu behar dira eta NDF Nazioarteko Diru Funtsak likidezia eman diezaike Estatuei.

Herrialde pobretuek zailtasun handia izango dute aurrera egiteko, **kanpo-zorren** zerbitzua barkatzen

ez bazaie, urte honetan gutxienez. Zalantzarik gabe, hobe izango litzateke luzaroko.

Txertoak mundu osoan beharko dira, eskuragarri izaten direnean, inolako diskriminaziorik gabe. Herrialde guztietara heldu behar dira, eta ez aberatsek pobreei helarazten dizkieten apurrak soilik.

Mundua zor globala eta erraldoia hartzen ari da, eta horrek berekin dakar **zerga-baliabide berriak erabiltzea, egoerari aurre egiteko. Planetan badaude nahiko baliabide ekonomiko** garai historiko hau gainditzeko, eta baita klima-aldaketa eta garapen jasangarriari erantzun ahal izatearren eskaerak betetzeko ere. Baina, eraginkorrak diren baliabideak falta zaizkigu, aberastasuna pairatzen ditugun eskakizun humanitarioetara bideratu ahal izateko. Eremu nazionalen, zerga-itun berriak bakarrik ahalbidetuko du, nazioarteko mailarekiko erlazioan, modu eraginkorrean eskakizunei erantzutea.

Birusak agerian utzi du gure munduak bizi duen desberdintasun nabarmena, eta, aldi berean, erronka luzatzen digu **gure mugetatik haratago hedatzen den elkartasuna abian jartzeko**, eta horrela elkarrekin ateratzeko gaur egun ditugun egoera larrietatik •





www.alboan.org



BILBAO
Padre Lojendio, 2 - 2º
48008 Bilbao
Teléfono: 944 151 135

PAMPLONA
Avenida Barañain, 2
31011 – Pamplona
Teléfono: 948 231 302

SAN SEBASTIÁN:
Andía, 3
20004 San Sebastián
Teléfono: 943 275 173

VITORIA
Monseñor Estenaga, 1
01002- Vitoria
Teléfono: 945 202 676